

## **Kultura-Vianako Printzea Erakundeko zuzendari nagusia**

### **Dori López Jurío**

Iruñean jaio zen 1961eko irailaren 4an.

Irakaskuntzako diplomaduna da (Filologiako espezialitatean) eta Euskaltzaindiaren D titulua du.

Foru Administrazioan 1988an sartu zen, eta 2001era arte irakaskuntzan jardun zuen, Haur Hezkuntzako eta hizkuntzen irakasle gisa (euskara eta ingelesa, 1983-1995) eta Bigarren Hezkuntzako hizkuntza irakasle bezala (euskara eta ingelesa, 1995-2001).

2001etik 2008ra bitartean, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusian lan egin zuen, Ikerketa Linguistikoko buru eta EGA Batzordeko kide bezala, eta horren ondoren, Nafarroako Gobernuko Kultura Ekintzako zuzendaria izan zen 2011 arte. Jarraian, 2015eko abuztua arte, Euskarabideko Hizkuntza Aholkularitza eta Komunikazioko burua izan zen, eta 2015eko irailaz geroztik, Kultura Ekintzako zuzendaritzara itzuli eta kargu horretan izan da zuzendari nagusi izendatu zuten arte.

2010etik 2011ra bitartean, Europako Kultura Programako laguntzei atxikita dagoen REMA (Réseau Européen de Musique Ancienne/ European Early Music Network) erakundeko lehendakaria izan zen, eta 2013ko ekainetik 2015eko ekainera bitartean, NPLDko (Network to Promote Linguistic Diversity) lehendakariordea.

2018ko maiatzean Kultura-Vianako Printzea Erakundeko zuzendari nagusi izendatu zuten.